

Biratu gurpila



JUSTIFIKAZIOA

Kontsumo-gizarte batean bizi gara, eta, horregatik, funtsezkoa da heztea eta sentsibilizatzea, neurrigabeko kontsumoa eragin dezaketen praktikak saihesteko.

Horixe da, hain zuzen ere, Garapen Iraunkorreko Helburuek lortu nahi dutena, gizarte eta ingurumen irizpideetan oinarritutako kontsumo arduratsua.

HELBURUAK

- Nagusi den kontsumo-ereduari buruz hausnartzea.
- Produkzio-katean esku hartzen duten agenteak ezagutaraztea.
- Kontsumo-eredu nagusiaren aurrean alternatiba iraunkorrak ezagutaraztea.
- Norbanakoen kontsumo-praktikak berrikusteko espiritu kritikoa garatzea.

EDUKIAK

- Kontsumo arduratsua.
- Elikadura-subiranotasuna. Bertako produktuak. 0 kilometroa eta bidezko merkataritza.
- Etiketa energetikoa.
- Energia-kontsumoa.
- Elikagaien alferrikako gastuaren aurkako ideiak.
- Ekonomia zirkularra.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Gurpilak mugitzen duenak behar du.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Adimena eta ezagutzak uztartuz, kasua osatuko duten 10 probak ebatzi beharko dituzte.
- Bateratze-lana talde handian.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Zer egin dezaket nik?

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Teknologiarako konpetentzia.
- Konpetentzia sozial eta zibikoa.

ZEHARKAKOAK

- Hitzezko komunikazioa, hitzik gabekoa eta digitala.
- Ikasten eta pentsatzen ikastea.
- Elkarrekin bizi.
- Ekimena eta espiritu ekintzailea.
- Izaten ikastea.

METODOLOGIA

- Erronketan oinarritutako ikaskuntza.
- Lankidetzalana.
- Lan kooperatiboa.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Probetarako materialak, inprimatuta. Tabletak. Interneterako sarbidea.	2/3 gela proben materialak jartzeko Hasteko gela bat, kontrol-puntua eta bateratze-lana. Gehienez 5 pertsonako 3 talde.	1 sesión – 90'

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.